

Donostia, 2015eko azaroaren 20a

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIARI

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. Artikulua oinarri, kontroleko mozio hau aurkeztu nahi du. Mozioa Ogasun Batzordean, 2015-10-16an, bideratutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Gobernu Batzarrak urriaren 20an egindako bilkuran erabaki zen onartzea uztailean onartutako Inbertsio Planeko 13 milioi euroko maileguaren kreditu eragiketaren kontratazioa arautuko duten aukeraketa irizpideak. Onartu zen dokumentuan, bosgarren puntuan, jasotzen denez, *“Esleipena prozedura eta irizpide hauei jarraiki egingo da:*

Eskaintzak ireki ondoren, multzokatu egingo dira, eskatu den diru zenbateko osoa estaltzen duten konbinazio posible guztiak eginez, eta hiruhileko Euriborrarekiko marjinaren arabera ordenatuko dira.

Hortaz, ikusten denez, eskaintza aukeratzeko orduan, irizpide ekonomikoak bakarrik hartu ziren kontuan.

Alabaina, Donostiako Udalbatzak Kaleratzeak Stop plataformaren mozio bat onartu zuen irailaren 24an. Mozio horren bidez udal honek bigarren puntuan konpromisoa hartu zuen *“beharrezko diren baliabide eta neurri guztiak erabiltzeko lehen etxebizitzako kaleratze eta irtenarazteak geldiarazteko eta behar izanez gero, bizileku bat izateko aukera bermatzeko”,* eta laugarrenean, *udalerrri honetan jarduten duten finantza erakundeengana jotzeko fede oneko zordunen kaleratzea geldiaraz ditzatela eskatzeko, jabetzan dituzten etxebizitza hutsen errolda garatzeko eta hutsik dauden etxebizitza hauek alokairu sozialeko programa publikoen zerbitzura jar ditzaten exijitzeko. Erantzunik jaso ezean, abian jarri beharreko neurriak aztertuko ditu, besteak beste, finantza erakunde hauekin lan egiteari uztea”.*

Ogasun Batzordean, 2015eko urriaren 16an, maileguak hautatzeko irizpideei buruz Ogasuneko zinegotzi ordezkariari egindako interpelazioan, zinegotziak azaldu zuen eskaintza ekonomiko onuragarriena aukeratzeko zela irizpidea, eta jardunbide desagokiak dituzten finantza-erakundeen eskaintzak atzera botatzeko irizpidea, udalbatzak konpromisoa hartutakoa, gauzaezina dela, ez omen duelako lege-egituraketarik.



Hala ere, 2016ko Aurrekontua Erabiltzeko Arauan bertan, 35.1 artikuluan, ezartzen den bezala, kreditu eragiketak Administrazio Publikoen Kontratuen Legean arautzen ez direnez gero, Irabazi Donostia taldeak irizten dio aukera badagoela finantza-erakundeek jardunbide egokiak izatea sustatzeko beste irizpide batzuk sartzeko, eta borondate politiko kontu bat dela, argi eta garbi.

Hori guztia dela-eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio kreditu eragiketen edo finantza-erakundeekiko bestelako eragiketa batzuen kontratazioa arautzen duten hautaketa irizpideen artean sar ditzala fede oneko zordunekiko jardunbide egokien kodea betetzea, hipoteken zoru-klausulak kentzea edo neurritz kanpoko banku jardunbideak baztertzea.

Izpta.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea.